

## «MAPA ZAHAR BATEN INGURUAN»

**G**ure hizkuntzak hamaika giltza ditu gauzak adierazteko orduan: deklinabide zehatz eta zabala, aditza indartsu eta mugikorra, hiztegi koloretsu eta aberatsa,... eta hauetakoren artean giltza ahaltsua den, aurrizkiz eta atzizkiz osaturiko toponimia sistima. Euskaldunak betidanik izan du toponimia ardatzat, leku izenak: mendiak, errekek, haranak, herriak, baserriak, etxeak,... bataiatzeko orduan, eta hortik datoz baita ere makina izen eta abizen; Ezin bait dugu ahaztu euskaldunen abizenik gehienek etxe edo baserriaren izenetik hartuta direla.



Lan edo jolas tresna ugariak, euskarak eskeintzen dizkigunak, baina politena ziur aski, toponimian oinarritutakoa. Euskaldunak ikusten du lekua, eta bere osagaiak azterturik, izena ematen dio, izena paisaiaren edo errelebearen ispilua eta oroimena bihurtuz. Euskal toponimia sistimak baditu bere barneko arauak, eta bere osagaiak, normalean eta lehen esan dudan bezala, aurrizkiak eta atzizkiak. Askotan izen toponimikoak galdu dira, bestetan desagertu dira izen berrien bultzadapean, baina badira asko eta asko baita ere urteen eta mendeen igarotzeari irabaziz, gure artean oraindik bizi bizirik daudenak. Gure Donostian gauza bera gertatu zaigu, izen asko gordetzen dugu oraindik, baina Donostia Berria eraikitzeko, gure hiri zaharrak ordain mingots eta mingarria pagatu behar izan du, bere betiko etxe eta baserrien botatzearekin. Bota dira zaharrak eta altxatu dira berriak, baina zoritxarrez zaharren izenak beraiekin batera desagertu dira gehienetan.



## 1. JOXE KLEMENTE OSINALDEREN MAPA

Behin Diputazio Liburutegira joan nintzela, goiko pisuko pareta batetik eskegita zegoen mapa bitxi batekin egin nuen topo. Bertan XIX. mendeko Donostia azaltzen zen, baina ez bakarrik harresien barruan zeukan kaxkoa, baita bere inguruko bailarak ere baizik. Baina erakargarriena neretzat, bertan azaltzen ziren etxe eta baserri izenak izan ziren, nik ordurarte ezagutzen ez nuen arlo berri batera eraman bait ninduten. Mapa 1858.eko urriaren 15ean dataturik dago, eta Joxe Klemente Osinaldek sinaturik.

Axota eta papera eskuan harturik, izenen kopiatze, eta gaurko auzoen arabera sailkatzeari ekin nion, honako izen multzo hauek eginez. Itsaso aldetik hasita, gaurko Ondarreta dagoen lekutik hain zuen: Marbil, Floriandegi, Arroka-Txiki, Arroka-Haundi, Rotsagilene, Arbizketa, Barraka eta Ondarreta izenekoak. Gaurko Antigua aldean gutxi gora behera: Bengantza, Txillardegia, Aranaldena, Donbaltasarrene, Txikoene, Jaboenia, Kaialenia, Julianaenia, Etxeberri, Erreri-Zaharra, Orgatxo, Bordatxo, Eulieta, Sanzerreka, Etxenagusia eta Markosene.

Amara Zaharrea: Arroka, Amara, Anduezane-Haundi, Anduezane-Txiki, Martaene, Ilunbe, Soldaduene, Marrukas, Barkaztegi-enea, Untzaene eta Portuene. Gaurko Amara-Berrin berriz, Arbaitzene, Matsaene, Erregetxoene, Arrubene eta Murlas.

Gorago, mendi aldean, eta gaur Aiete izenaz ezagutzen dugun eremuan: Muntoa, Alkitza, Otsanda, Isturin-Haundi, Isturin-Txiki, Isaburu, Aize-Errota, Txutxuene-Haundi, Txutxuene-Txiki, Almazan, Txabardegia, Kalene, Fragua, Lazkano, Arratolaenia, eta Pintore. Eta aldameneko Errondo aldean: Diruna, Txanpoene, Agustindegi eta Gorritiene.

Garai batean horren famaturik zen San Martin auzoan honako izenak azaltzen dira: Aldapeta, Altxibena, Kapillaberri, Bikariyoene, Beloka, Kapillabaenia eta Unaenia. Eta San Martin eta hondartza tarteko zabaleran beste hauek: Saldias, Beloka, Tosterdi, Matxillandaene eta Errekalde.

Urumea ibaiaren beste aldeko auzoetan honako sailkapena egin dut: Egian ugariak, eta askoz gainera: Suletene, Torres, Manuene, Latxene, Uretene, Burgene, Gabiyostegi, Etxezahar, Iradiene, Erreka, Antxuenia, Aldapa, Adinene, Konfitegilene, Toledobia, Tirritene, Altamira, Olibasene, Ahuntzaene, Kapitanene, Konkorrone, Burrukaindrene, Latsaga, Leñene, Kallasene, Arriyeta, Etxeberriene, Arraungileta, Sagardotegi, Kojaenea, Aldakoene, Txanpokene, Flamenkoene, Madriletxo, Danbolin, Eltxetxo eta Kapitantxo.

Urrutiago, Urumeako azken bi meandroetan, eta gaur Mundaiz deritzan auzoan honako hauek: Errotatxiki, Errotaberri, Aldamar, Presaburu, Telleria eta Mundaiz. Gaurko Gros auzoan: Mantxuene, Errekalde, Harriberri, Txafrene, Eriyoene, Gurutze, Murrutxaene, Juanbeltrane, Argiñaene, Indigaina eta Indiyano. Baserri hauek eta itsaso artean Zurriolako dunak aipatzen dira, eta auzoa bukatzen den tokian Ategorrieta jarri beharrean, «Paseo de las puertas coloradas» jartzen du erderaz. Zein ote lehenago oiloa edo arraultza?



Bukatzeko Ulia mendiko gerizpean dagoen Sagues auzoan agertzen direnak aipatuko ditugu. Monpas izenez ezagutzen dugun aldean: Arbola izeneko barria, eta beherago, gaurko Sagueseko etxeak dauden tokian, Txoltene, Peruene, Txapelotene, Tiñoene, Aldalbene, Marujene, Semoruja, Beroetxe, Alejandriya, Mantio, Bida-Alegre eta Txangarrene. Osoan 150 izen, Donostiako puzzle toponimikoa osatuz, eta gure arbasoen bizibide, ohitura eta bestelako zehazkizunen berri emanez. Azter ditzagun!

## 2. IZEN TOPONIMIKOEN IRAKURKETA

Euskal toponimian osagile asko daude, eta lotzerakoan esanahi zehatza eskeintzen digute. Gure toponimiaren barruan aurrizkiak (hitzaren aurrekoak), ertizkiak (erdi aldekoak) eta atzizkiak (atzeko aldekoak) ditugu, eta elkartzerakoan, gutun berezi baten emaile egiten zaizkigu. Badaude hitzak osagai bakar batez eginik daudenak, baina normalean bi edo hiru osagai agertzen dira. Euskal toponimikoak esanahiaren aldetik sailkatu nahi baldin baditugu, hiru talde egin beharko ditugu: a) leku agerle hutsak, b) jabetasun agerleak eta d) bizibide agerleak. Gainera kontuan hartu beharra daukagu, badaudela gure artean beste hizkuntzetatik hartutako toponimo mailegu piloa, bai gaskoieratik, bai arabieratik, bai aragoieratik, eta bai gure bizilagun modernagoak diren frantsesera eta espainieratik. Baina Donostiaren kasuan gehien gehienak, gaskoieratik sortutakoak dira. Esan beharra dago euskal toponimikoen irakurketa edo interpretazioa, normalean, atzetik aurrera egiten dela.

### a) Leku agerleak:

- **ETA / KETA (ugaritasuna):** ArbizKETA, (H)OndarrETA, EuliETA, Aldap(E)Ta, AtegorriETA,...
- **DEGI / TEGI (Lekua):** TxillarDEGI, TxabarDEGI, GabiyozTEGI, SagardoTEGI,...
- **BERRI (berria):** EtxeBERRI, KapilaBERRI, ErrotaBERRI, HarriBERRI,...
- **ZAHAR (zaharra):** Erreri-ZAHARRA, EtxeZAHAR,...
- **TXO (txikigarria):** OrgaTXO, BordaTXO, EltxeTXO,...
- **TXIKI (txikia):** ArrokaTXIKI, AnduezaneTXIKI, Isturin-TXIKI, ErrotaTXIKI, Txutxuene-TXIKI,...
- **HAUNDI (haundia):** ArrokaHAUNDI, Anduezane-HAUNDI, Isturin-HAUNDI, Txutxuene-HAUNDI,...
- **BIL (?):** MarBIL (Jaizkibelen badago ArranBIL izeneko deitura)
- **ERREKA:** SanzERREKA, ERREA(a)lde.
- **NAGUSI:**EtxeNAGUSI
- **BE / -BA / -PE (behekoa, azpikoa) :**AldaPA, AldaPEta, IlunBE, AldaBEne, AltxiBEne, ArruBEne,...
- **ALDE (aldekoa):** Erreka(A)LDE, AranALDEnia,...



- BURU (goiko alekoa): IzaBURU, PresaBURU,...
- ERROTA: Aize-ERROTA, ERROTAzahar, ERROTAtxiki,...
- AGA (ugaritasuna adierazlea, basoa): Latsa(A)GA,...
- TZA (landareen edo zuhaitzen ugaritasuna adierazlea): AlkiTZA,...
- GAINA (goiko aldea): IndiGAINA,...
- OLA (burnia egiteko lantegia): ZurriOLA, ArratOLAenia,...
- UNE/-GUNE/-ENE/-ENEA (-enia) (leku adierazle): UntzaENE, PortuENE, ArbaitzENE, Ma(ha)tsaENE, Arrube(E)NE, Kale(E)NE, Altxibe(E)NE, MatxillandaENE, TxanpoENE, SuletENE, LatsENE, UretENE, BurgENE, IradiENE, AdiñENE, TxirritENE,, OlibasENE, AhuntzaENE, TxikoENE, KonkorrENE,...
- AntzuENIA, KaialENIA, JaboENIA, ArrotolaENIA, UnaENIA, AranalDENIA, KapilabaENIA,..

#### b) Jabetasun agerleak:

- ENEA(-ENE/ENIA (jabetasuna): BarkaztegiENEA, JulianaENIA, MarkosENE, MarujENE, Juanbeltra(E)NE, ManuENE, DonbaltasarrENE, KojasENE, ErregetxoENE, FalmenkoENE, MartaENE,...
- DEGI (lekuaren jabetasuna): FlorianDEGI, AgustinDEGI,...

#### d) Bizibide agerleak:

- GLE/ -EGILE (egilea): Rotsa(E)GILEne, KonfitEGILEne, ArraunGILEta,...
- ENE/-ENEA: KapitanENE, SoldaduENE, BikariyoENE, (H)argiñaENE,...
- TXO: KapitanTXO,...
- Indiyano,...

Lehen esan dugun bezala Joxe Klemente Osinalderen mapan azaltzen diren baserri izen guztiak ezin daiezke hiru talde hauetan sailkatu, badaudelako beste hizkuntzetatik harturiko maileguz edo hitz eratorriez bataiatutakoak. Gehien gehienak dira gaskoieratik hartutakoak, esate baterako: AMARA, BELOKA, MURLAS, ALDAMAR, MANTIO, MUNTO, MUNDAIZ, MARRUKAS, BARRAKA, SEMORUJA,.... baina badaude baita ere gazteleratik datozenak, halanola: BENGANTZA, FRAGUA, TORRES, ALTAMIRA, BIDA-ALEGRE, ARBOLA,....

### 3. GURE ARTEAN IRAUN DUTENAK

Nahiz eta mapa honetan azaltzen diren izen gehienak gaur desagerturik egon, badaude ale batzuk oraindik eguneroko bizimoduan erabiltzen ditugunak. Adibidez, ONDARRETA baserriak izena eman dio bere tokian gaur dagoen hondartzari, ARROKA baserria zegoen tokian gaur Arroka Kalea dugu, eta



Amara baseritik gaur bi auzok daramate bere izena, bere izenaren barruan eremu zabalak hartuz: AMARA (zaharra) eta AMARA-BERRI. ALDAKONEA baserria desagerturik egon arren, bere izenez ezagutzen da Egian dagoen aldapa izugarria, eta baita KONKORRENEA desagerturiko baserriaren izenez Egiako beste alderantz jeisten den beste aldapa izugarria.

Amara aldean, badugu beste aldapa gaur desagerturik dagoen baserri baten izena daramana: ALDAPETA. Mundaiz baseritik, gaur MUNDAIZ bailara ezagutzen dugu, eta MURLAS baseritik gaur MORLANS deritzana. ZURRIOLAKO dusetatik ez zaigu hondar askorik gelditzen, baina bai bere izena Zurriolako Arrokkak, Zurriola (edo Gros)-eko hondartza eta Zurriolako (edo Kursaleko) Zubia izendatzeko.

Beste baserri izenetatik gutxiago gelditu zaigu. Esate baterako TXILLARDEGI baseritik bakar bakarrik Jose Luis Alvarez Enparantza euskal idazle sanmartindar oparo eta aberatsak bere lanak izenpetzeko erabiltzen duen izen bereko izengoitia: ERROTABERRI baseritik ez dugu gauza haundirik gordetzen, Urumeako horma batetan (Koipe parean) sarturik baina agerian dagoen bere errota kurpil zaharra ezik. Kuriosoki mapan «Paseo de puertas coloradas» azaltzen den izena bitxiatik bere euskarazko izen soila gelditzen zaigu: ATEGORRIETA. Munto baserriak berriz, zutik dirau taberna bihurturik, eta TXOFRENE baseritik bakar bakarrik gordetzen dugu bere izena eraman zuen zezen-plazaren oromena. (TXOFRE).

## DONOSTIAKO BESTE ZENBAIT IZENEN BALIZKO ESANAHIA


Amaitzeko guztiz komenigarria deritzot mapa honetan azaltzen ez diren beste izenen balizko esanahia aipatzea. Hasteko DONOSTIA izena bera adieraziko nire uste apalez. Teoria asko egon dira, baina nik esango nuke DONOSTIA Done Sebastia hitzen laburduratik datorkigula, DONAMARIA, DONEZTEBE eta DONEMARTIRI izenekin gertatzen den bezalaxe. Beraz ez litzateke era hontako euskal toponimiko bakarra. Bestaldez badirudi garai zaharretan bestelako izenetan eduki duela, eta aipatzekotan apagarriena nire ustez Gorosabelek aipatzen digun IZURUN ospetsua (HIRU TXULO ote?)

Bere auzoei dagokienez, badirudi AMARA gaskoia dela, eta bertan zegoen lintzura edo paduraren berri eman nahi digula. AIETE izen berriagoa dugu, eta ematen duenez bertan HAYETTE izeneko gaskoi famatuek eraikitako etxe baten izenetik datorkio. SAN MARTIN auzoak hartu zuen izen hau, bere parrokia Tourseko San Martinen izenean eraikita zegoelako, eta GROS auzoak bertan lehenengo etxe eraiki zuen Tomas Gros gaskoiaren abizenetik.

EGIA ez da oso originala izenaren aldetik behintzat, bertan zegoen muino baten hegia (magaletxo) zela adierazten bait digu. ANTIGUA izena bertako parrokian benarutzen den Ama Birjinaren izenetik omen dator batzuren ustez, eta besteen ustez berriz, Donostiako auzorik zaharrena izan denetik. ATEGORRIETA izena bere bide bazterreko ate gorrizkaetatik omen dator, bere erderazko itzulpena (edo izen zaharrak?) ongi adierazten digun bezalaxe: MUNDAIZ bertan zegoen baserri baten izena omen da. INPERNUA baserri ba-



tetik omen dator; Garaiko agiriek diotenez, bertako nagusiak oso birau handiak botatzen zituzenez, bertan biltzen zirenek Inpernu izen adierazgarria eman omen zioten, eta gero denborarekin bailara osoa izendatzeko zabaldu zen. SAGUES eta MONPAS gaskoiak dirudite, baita MORLANS auzoaren izena ere, ziur aski bertan zegoen Murlas izenatik datorkigularik.



URUMEA ibaiaren izena guztiz euskalduna den bitartean (ur mehea), URGULL eta ULIA mendien izenak gaskoiak izango lirateke, eta Igeldo berriz, euskalduna baita ere.

Ikusten duzuenez Donostia altxor txiki bat da, eta ez bakar bakarrik bere edertasunaren aldetik, bere toponimia aberatsaren aldetik ere baizik. Penagarria da donostiarrok gehiago ez jakitea honetaz, baina penagarriagoa oraindik holako gauzak donostiarron begietara zabaldu behar dutenen zabarkeria eta ahazkeria. Bada ordua donostiarrok gure iraganaren jabe egin gaituzela, etorkizun hobeto eta donostiarrago baten arrazoiz eta ezagupenez, borroka dezagun.

— ZABARRE —



## REFLEXIONES SOBRE UN MAPA...

---

**N**o ha mucho era apelativo de dos caseríos alejados del casco urbano renteriano: Beraun-zarra y Beraun-berri. Denominador hoy de populoso barrio, suscita curiosidad el origen de tan sonora palabra.

Ese gran enterado de las cosas vascas, don José Luis Banús y Aguirre, escribiendo sobre puertos romanos en nuestras costas y tras el correspondiente deslinde entre meros atracaderos nocturnos —la navegación de cabotaje diurna era norma entonces— y puertos más estables; cita entre éstos «como embarcaderos de la mena argentífera que se extraía de la minas de Ardi-iturri, los puntos llamados Beraun, dos espolones de tierra firme en los estuarios del Oarso (actual bahía de Pasajes) y del Bidasoa».

Beraun estima corrupción de «berún» (plomo en euskera) y, aun cuando no esté claro, quizá acierte de lleno al opinar que las minas citadas eran «el punto focal del área llamada Oeaso por los romanos».

Examinemos tal teoría con los ingenuos ojos del ignorante en materias históricas. Los romanos extraían de Ardi-iturri el mineral que les proporcionaba plomo con una propinilla de plata. Incuestionable. Ahora bien, «Nadie ha encontrado el menor rastro de instalaciones donde se tratara el material en bruto», dicit Banús, quien estima lo llevaba en barcos a Bayona o Burdeos para hacerlo. Aquí disentimos; aquellos italos eran eminentemente prácticos para despilfarrar energía. Si la transformación no se llevaba a cabo donde la mena veía la luz, lo harían en lugar cercano o de fácil comunicación dentro de la Bahía de Oarso que entonces llegaba hasta Arragua cuanto menos.


Tenemos ejemplos modernos. La casa Chavarri Hermanos, de Bilbao, al construir el ferrocarril minero que desde Ardi-iturri llevaba al puerto de Pasajes el carbonato de hierro extraído por encima de la mena argentífera que, a su vez, explotaba la Real Compañía Asturiana de Minas; eligió camino paralelo al que sugiero para los romanos. Es más; aquéllos, el embarcadero del mineral y la Asturiana de Minas, sus fundiciones; las instalaron prácticamente en las costas de Galtzakogaña, la península que Banús llama «de Beraún» impropriamente.

Examinando viejos mapas, con cotas de nivel de veinte en veinte metros y partiendo de la premisa de que, hace dos mil años, hasta la cota diez actual era dominio de las mareas; podemos imaginarnos barcazas o almadias cargadas de mineral bajando por el Oyarzun (mucho más profundo que ahora y con las aguas marinas dejándose sentir casi hasta Iturriotz) para atracar en algún lugar con posibilidades de transformar la galena y de embarcar sus productos, limpios de polvo y paja, rumbo a la absorbente Roma o las populosas ciudades de las costas galas. Este oscuro punto pudiera estar donde la corriente del río se diluye entre las aguas del mar; quizá entonces en Arragua, acaso entre la antiquísima Rentería y el monte Darieta o Altamira (lugar donde la bahía se estrechaba sensiblemente o donde ahora lo hace, entre Capuchinos y Lezo).



Veamos, veamos el mapa... El lado derecho del río, de Arragua a Lezo, era de dura pendiente y poco apto para puertos. En la margen izquierda tenemos la Fandería como posible emplazamiento. Más adelante aparece nuestro viejísimo solar, sito en un espolón de fácil acceso por mar, que se enfrentaba con las nuevas orillas desde —Alaberga a Pontika— de esa masa de tierra que forman las colinas de Galtzaraborda y Galtzakogaña, de abruptas riberas salvo la parte citada.

Dando por sentado que el «Saltus Olarso» y la indedeterminada ubicación de Oeaso, Oarso u Oiarso gira en torno a las mencionadas minas y al embarque de sus productos; es posible que la factoría de la Asturiana de Minas se encuentre, precisamente, donde antaño la romana. El lugar que la acoge no existiría tal cual hoy se ve, indudablemente. Sin embargo, las aguas del Oyarzun, muy mitigadas en su ímpetu por las marinas, al chocar con las pinas costas de Galtzakogaña facilitarían la formación de una playa sedimentaria —sumamente estratégica— base de la actual plataforma.



Suposiciones... pero, ¿qué otra cosa tenemos de aquella época? El hallazgo de unas ruinitas adecuadas haría brincar de júbilo a muchos historiadores, más ¿qué ruinas dejarían rústicos hornos de fundición aparte cenizas? Y de éstas Capuchinos está saturado ¿Quién negará con

fundamento aceptable, que bajo las escorias actuales no se esconde residuos de tan lejanos días?

Teóricamente al menos, serán más consistentes los restos de la enigmática ciudad de Oarso. De sobra sabemos la afición de los romanos a construir en piedra, pero ésta incógnita urbe ¿era romana, bascona o mixta? Si lo primero, tendría más de enclave o factoría —algo semejante a los peliculeros fuertes del Oeste americano— construida con murallas de troncos suficientes para rechazar ataques de los «barbaros bascones», los «indios» de entonces, que de «ciudad». Y ¿qué restos quedarían veinte siglos después? Confiamos en que tuvieron tiempo para edificaciones más perennes.

Sigamos muestras deducciones ignorantes. Si las fundiciones estaban en Capuchinos: ¿dónde alzaría sus muros Oarso? Desde luego, no allá. Los latinos eran conscientes de los peligros inherentes al tratamiento de la galena. De todos modos no estaría lejos y aquí entran muchas posibilidades aunque el mapa sugiera principalmente dos:

— Una, la casi islita formada por el viejo casco lezotarra. La antigua Lazón era un montecillo rodeado de agua por todas partes salvo estrechísimo istmo, teniendo así posibilidades de defensa inmejorables. Creo que, si alguna vez se cava lo suficiente bajo la iglesia o las casas de la zona alta, debería hacerse con cucharillas de arqueólogo...



— La segunda es la villa de nuestros amores. Las trágicas inundaciones de 1933 nos dieron una «foto» de aquel Rentería. Las aguas cubrían, desde Arragua y Lintzirin, Gabierrota y sus huertas, las instalaciones de la Papelera y la calle Santa Clara, las llamadas Casas Nuevas, las Alamedas, la Vega de Iztieta, calle Viteri, plaza de los Fueros con corto entrante hasta el final de la plaza de abastos (entrante que sirvió, en otros tiempos, de foso a las murallas) y otro mayor por la calle Magdalena (antaño del Arrabal) y la de María de Lezo (Atzeko-atea) alcanzando al actual barrio de Pontika cubriendo los amplios terrenos de la ex-Tintorería y la ex-Lanera. ¿No es sugerente que sólo las calles que rodean al Ayuntamiento y suben iglesia arriba quedasen libres de las aguas? Pues... ¡ahí habría que cavar...! Seguro que aquí en Lezo se hallarían los restos tan buscados...

¿Y Beraun, como queda Beraun tras todo esto?

Como indicamos, heredó su nombre de los desaparecidos caseríos homónimos situados, precisamente, en la cresta de la loma al Sur de la cual se asienta. Y recordando donde estaba el «zarra» —indudable padre de la criatura— en una especie de cuello uniendo las estribaciones de San Marcos a las alargadas lomas de Galtzaraborda y Galtzakogaña, istmo separador de dos senos marinos muy acusados aún cuando hoy estén rellenos por los aluviones y por la avaricia que los cubrió de casas: el de Molinao, apelativo de origen gascón, envolviendo todo cuanto es hoy Pasajes Ancho hasta más allá de las Fundiciones Luzuriaga; y el de Pontika donde es evidente existió lugar apropiado para el atraque de naves hasta muy recientemente. En tiempos que conoció mi difunto padre, las barcas de pesca vendían aquí, a diez céntimos, ¡aquellos enormes baldes de zinc que se usaban para el transporte de la ropa a los lavaderos, bien repletos de coqueantes sardinas! Por tanto, es probable que allí hubiese un embarcadero romano. El mismo nombre insinúa reminiscencias latinas. También es posible que ya existiese el camino por el fondo de la vaguada naciente donde se hallaba Beraun-zarra y que llevaba por su collado a la otra vertiente de la masa de tierra que forman los «Galtzas», ya que se trata del camino más corto para ello.

Como se ve, este «baserri» estaba en magnífica situación, paso obligado de Pontika a Molinao y de tierra adentro a los «Galtzas» ¿Dio el plomo de Ardi-iturri esta denominación a Beraun? Opino que no, pese a las circunstancias. Dado el enclave del viejo caserío, quizá su nombre derive de «belaun» (rodilla) ya que allí se articulaba la tierra interior con las colinas mencionadas. Dejando aparte sutilezas etimológicas, los «galtzas», sugieren las perneras de un pantalón unidas en Beraun-zarra. También es posible que provenga de «beraun» o «beruntz» (hacia abajo) ¿chi lo sa? Lo que si me pregunto es: ¿para qué los romanos iban a subir el plomo hasta allí?

La ladera donde ahora surgen casas en informe montón fue, en mis días juveniles, un gran manzanal pero... esto queda muy distante de los romanos y del plomo así que, como ya vertí bastante «Pb» en éstas líneas, me quedo mirando a mis viejos mapas y soñando...

— BIDARTI - «Oarso» 1980 —